



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

GARAPEN LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK, OHI BEZALA, AIREAN

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Gobernuz Kanpoko Era-kundeen Koordinakundeak joan den asteazkenean Do-nostiako Bulebarrean egin zuen ekitaldian, garapene-rako lankidetzako laguntzak lortzeko egin beharreko akrobaziak antzeztu zituen. Laguntza horien gaineko datuak eman dituzte asteon, datu kaskarrak, ohi beza-

la. Nazio Batuek duela hainbat hamarkada gomendatutako %0,7 horretatik oso urrun. Aldian behingo ekitaldi arranditsuetan erakunde publikoetako arduradunek helburutzat aipatzen duten %0,7 horretatik oso urrun. EAEko Lankidetzarako Legeak Nazio Batuen gomendioa betetzeko xedatutako 0,7 horretatik oso urrun. Krisi garaian «denok eman behar dugu apur bat» entzun dugu, «denok» ez bide diren batzuk aberasten ikusten ditugun aldi berean. Denok apur bat, apu-rrik ez duenak barne, jakina. Ekonomia suspertzen hasi den honetan, baina, lankidetzako lagun-tzek ez dute susperraldirik ezagutu. Eta, ohi bezala, airean segitzen dute. Xabier Izaga Gonzalez